# GIDA AZKARRA

# LIZITATZAILEARENTZAT

# Aurkibidea

Aurkibidea ........................................ 2
Eskaintzak aurkeztea ........................................ 4
Jakinarazpen elektronikoak eta komunikazioak ........................................ 25
Kontsulta, zuzenketak, adjudikazioaren aurreko eskakizunak, azalpenak eta galderak ........................................ 30

**<u>OSO GARRANTZITSUA</u>:**

**Ziurtagiri elektronikoa behar da eta fisikoa edo juridikoa izan daiteke.**

**Fisikoa izanez gero, ziurtagirian eskaintza aurkeztu duen pertsonaren NANa jaso beharko da.**

**Juridikoa (edo ordezkaria) izanez gero, ziurtagirian eskaintza aurkeztu duen pertsonaren NANa zein enpresaren IFK jaso beharko dira.**

**Bi kasuetan, aurkezpena egiten duen pertsonak kontratatzeko eskumena izan behar du.** Eskumenik ez badu, eskaintza aurkeztea onartuko da, baina, ondoren, kontratazio mahaiak erabakiko du balio duen edo ez.

# Eskaintzak aurkeztea

Eskaintzak elektronikoki aurkezteko, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman eskuragarri dagoen esteka erabili behar da, "Aurkezpen elektronikoaren web helbidea" epigrafearekin, eta "Oharrak" atalean.

Beheko irudian, azaldutako esteka eskuragarria ikus daiteke:



**Bizkaian dauden kirol-guneak aztertzea eta diagnostikatzea, eta 2023 eta 2024 urteetan etorkizuneko jarduketei lehentasuna ematea.**

| | |
|---|---|
| **Espedientea :** | 2023/0007/071/04 |
| **Lehen argitalpenaren data :** | 2023/03/16 |
| **Azken argitalpenaren data :** | 2023/03/16 |
| **Kontratu mota :** | Zerbitzuak |
| **Izapidetzearen egoera :** | Aurkezteko epean |
| **Aurkezteko muga-eguna :** | 2023/04/03 12:00:00 |
| **Kontratuaren aurrekontua, BEZ gabe :** | 52,250.00 |
| **Botere adjudikatzailea :** | Bizkaiko Foru Aldundia |
| **Erakunde sustatzailea :** | Euskara, Kultura eta Kirol saila |

**Izapidetze elektronikoa egiteko web helbidea :**
https://apps.bizkaia.eus/sede-dipubiz/licitacion/oferta/asistenteInscripcion?numexpediente=2023/0007/071/04

Esteka horren bidez, erakundean aurkezpen elektronikoa egiteko webgunera sartu ahal da:

## Identifikazio elektronikoa Euskadi plataforman (KPE)

Eskaintza elektroniko bat aurkezteko prozesuan agertuko den lehenengo gauza, identifikatzeko pantaila izango da, hau da, prozesuan aurrera egiteko beharrezkoa da identifikatzea.




Pantailan eskaintza aurkeztean sinatzeko erabiliko den ziurtagiria hautatu behar da. Ziurtagiri digitalen aukera hautatuz gero, nabigatzaileak berak ekipoan eskuragarri dauden ziurtagiriak erakutsiko dizkizu.




**OSO GARRANTZITSUA**: Ziurtagiri elektronikoa behar da eta fisikoa edo juridikoa izan daiteke. Fisikoa izanez gero, ziurtagirian eskaintza aurkeztu duen pertsonaren NANa jaso beharko da. Juridikoa (edo ordezkaria) izanez gero, ziurtagirian eskaintza aurkeztu duen pertsonaren NANa zein enpresaren IFK jaso beharko dira.

Erakunderen baten ordezkaria izanez gero, dagokion erakundeak erakutsiko dira, dagokiona hautatzeko.




Ordezkaria ez izatekotan, proposamenean eskatutako datuak betetzeko galdetegi bat agertuko da.

**Bi kasuetan, aurkezpena egiten duen pertsonak kontratatzeko eskumena izan behar du.** Eskumenik ez badu, Plataformak eskaintza aurkeztea onartuko du, baina, ondoren, kontratazio mahaiak erabakiko du balio duen edo ez.

## Izena eman

Jarraian, izena emateko prozesua hasiko da. Identifikazio pantaila agertuko da eta, bertan, proposamenaren harremanetarako datuak eta identifikazio datuak bete beharko dira (* duten esparruak nahitaez bete behar dira):




Ondoren, eskaintza aurkeztuko duen pertsona mota hautatu beharko da:



Jarraian, harremanetarako datuak sartu beharko dira, hautatutako modalitatearen arabera.



Izartxo gorri bat duten esparruak nahitaez bete beharko dira proposamenean izena emateko.

Gainera, ordezkari bat adierazi beharko da derrigorrez. Horretarako “Gehitu ordezkaria” aukeran sakatu behar da.




Hona hemen ordezkariaren datuak betetzeko galdetegia:




Ordezkariaren datuak bat etorri beharko dira aurkezpena egiteko erabiliko den ziurtagirian jasotako datuekin. Kontuan izan aurkezpenean erantsitako dokumentuak eskaintzak aurkezteko eskumena duten pertsonek sinatu behar dituztela.

**OHAR GARRANTZITSUA**: Gehitutako ordezkari sinatzaile guztien datuek bat egin behar dute eskaintza sinatzeko erabiliko diren ziurtagiri elektronikoetako datuekin eta eskuragarri egon beharko dira prozesu osoan zehar, hau da, izena ematean, ixtean eta eskaintza aurkeztean.

Eskatutako gutxiengo datuak bete ondoren, “Gorde” botoiarekin baieztatu eta ordezkaria galdetegian jasoko da:




Nahi izanez gero, ezabatu edo aldatu daiteke, ordezkariaren eskuineko botoien bidez.

Informazioa bete ondoren, "Hurrengoa” sakatzean, lizitatzaileari izena emango zaio espedientearen lizitazioan.



## Pasahitza (zifratuaren gako pertsonala)

Eskaintzaren pribatutasuna bermatze aldera, zifratuaren pasahitz pertsonala adierazi beharko da. Hura proposameneko galdetegietan jasotako informazio guztia (datuak eta dokumentuak) ordenagailuan bertan enkriptatzeko erabiliko da.

Pasahitz hori ez zaie inoiz bidaliko lizitazio plataformako zerbitzariei, lan saioan zehar zure nabigatzailean mantenduko da eta hori amaitzean, zuzenean ezabatuko da.

Sortutako eskaintza bakoitzean pasahitz bat sortu behar da. Oso garrantzitsua da pasahitza gogoratzea, izan ere, ahaztuz gero, ezin izango da aldez aurretik sartutako informazioa eskuratu ezta proposamena bidali ere.

Pasahitza ahaztuz gero, proposamena hasieratik hasi beharko da, zifratu gako berri batekin.



## Elaborazioa

Lizitatzaileari espediente horretarako izena eman eta segurtasun gakoa adierazi ondoren, erlaitz bat agertuko da eta irizpide bakoitzerako eskatzen diren informazioa eta dokumentuak erantsi ahal izango dira.




Ezkerreko aukeretan klik eginda, zuzenean, espedientearen ataletan edota irizpideetan sartu ahal izango da.




Proposamenen dokumentuak eransteko “Artxiboa hautatu” aukeran klik egin behar da.




“Hurrengoa” eta “Lehengoa” botoiekin espedientearen irizpideetan mugitu ahal izango gara:




Loteetan eskatutako urratsak jarraituko dira, bai eta eskatutako dokumentazioa ere.

Gogorarazi behar da jatorrian zifratzen dela eta eskaintzaren edukia ezin daitekeela kontsulta dagozkion kontratazio mahaietan gutun azalak ireki arte.

## Berrespena

Proposamenaren datu nagusien laburpena agertuko da eta bertan, jarraitu baino lehen, datuak zuzenak diren berrikusi ahal izango da.






**Informazio zuzena bada, jarraitu hurrengo atazara aurkezpena egiteko. Une horretan, eskaintza itxi egingo da. Beraz, eskuratutako informazio guztia zifratuko da eta, horrela bermatuko da edukia ez dela irakurriko lizitazio prozesuan adostutako unera arte.**

Guztia behar bezala eginez gero, “Hurrengoa” botoia sakatu aurkezpena egiteko.

## Aurkezpena

Aukera horren bidez benetan egingo da aurkezpena botere adjudikatzailearen aurrean, eskaintza ixtean sortutako fitxategia bidaltzen denean.

Eskaintza aurkeztuko da. Une horretatik aurrera ezin izango da aurkezpeneko daturik aldatu.

Amaitzean, prozesua behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko ziurtagiri bat sortuko da.

Eskaintza aurkeztu baino lehen proposamena elektronikoki aurkeztu beharko da:




Eskaintza sinatzeko Id@zki aplikazioa instalatu behar da. Horretarako, pantailan bertan esteka bat agertuko da.

“Sinatu” botoian sakatuz gero, Id@zki aplikazioa agertuko da, eta bertan, ziurtagiria hautatu behar da. Gogoratu ziurtagiriak bat etorri beharko duela ordezkariarentzat adierazitakoarekin.




Sinadura behar bezala gauzatzen bada, galdetegian adieraziko da eta eskaintza aurkezteko botoia agertuko da.



Behar izanez gero, “Kendu sinadurak” botoiaren bidez egindako sinadurak ezabatu ahal izango dituzu.




“Aurkeztu” aukeran sakatuta prozesua osatuko da eta eskaintza elektronikoa aurkeztuko da.

## Emaitza

Eskaintza behar bezala aurkeztu dela jakinarazteko honen antzeko mezu hau bidaliko dizu aplikazioak:




Eskaintza aurkeztearen ziurtagiria lor daiteke “Ziurtagiria deskargatu” botoian klik eginda.



## Berriro aurkeztu

Beste eskaintza bat aurkeztu behar izanez gero, botere lizitatzailearen atal pribatutik sartu behar da, adjudikatzailearen Egoitza Elektronikotik.

Egoitzan bertan, proposamena aurkeztu duen lizitatzaile gisa, “Lizitazioak” atalean lizitazioak agertuko dira, “Epean”, “Abian” edota “Ebatzita” daudenak (gogoratu: eskaintza berri bat aurkeztu ahal izateko, espedienteak aurkezteko epean egon behar du).




Hemen, aurkezpena egin zaion espedientea aurkituko dugu, "Ikusi Xehetasunak" sakatuz gero, proposamen berri bat aurkezteaz gain, aurkezpeneko eta espedienteko gainerako datuak berrikusi ahal izango ditugu.




Beste proposamen bat aurkezteko “Eskaintza berri bat aurkeztu” aukeran sakatu eta jarraitu urratsak, hasierako aurkezpenaren antzekoak.

Dagoeneko aurkeztu den eskaintza ezin izango da aldatu.

# Jakinarazpen elektronikoak eta komunikazioak

Jakinarazpena ikusteko prozesua hau da:

1. Sartu lizitatzailearen gune pribatuan, entitatearen egoitza elektronikotik → Nire lizitazioak (esteka)

    a. Goiko eskuineko izkinako “Sarbide pribatua” aukeraren bidez kautotu zati honetan, eta, ondoren, baliozko ziurtagiri elektroniko baten bidez edo pasahitz baten bidez sartu, erregistratu ondoren. Erregistratzeko, ezinbestekoa da ziurtagiri elektroniko batekin lehenago sartu izana:




    b. Atal honetan, lizitazio aktiboak, egin gabeko zuzenketak, botere esleitzaileak bidalitako argibideak eta lizitatzailearentzat interesgarriak diren bestelako datuak kontsultatu ahal izango dira. Gainera, “Jakinarazpenak” eta “Komunikazioak” atalak daude:




c. Atal honetan lizitatzaileak jasotako jakinarazpen guztiak agertuko dira, zein egoeratan dauden adieraziz. Jakinarazpen bat eta erantsitako dokumentazioa ikusteko, jakinarazpena “onartu” behar da, jakinarazpenaren eskuinaldean dagoen botoia erabiliz.
**Garrantzitsua**: erakundeak bidalitako jakinarazpen-dokumentua ikusi ahal izateko, lehenik eta behin onartu egin behar duzu.

d. Komunikazioak lizitatzailearen gune pribatuan kontsultatu ahal izango dira, dagokion ataleko estekan sakatuz:




Klik eginez, komunikazioen zerrenda erakusten du:


Hasiera / Karpeta pertsonala / Komunikazioak
Komunikazioak
Zuretzat interesgarriak izan daitezkeen informazio-komunikazioen zerrenda, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatutako programei, deialdiei eta eskaerei buruzkoena.
Idatzi bilatzeko testua
MESA DE CONTRATACIÓN B071-2020-00218
EGOERA
Irakurrita
Ikusi xehetasunak
IGORPEN DATA
2 July 2021 13:18
FECHA DE LECTURA
MESA DE CONTRATACIÓN B071-2020-00218
EGOERA
Irakurrita
Ikusi xehetasunak
IGORPEN DATA
2 July 2021 12:37
FECHA DE LECTURA
MESA DE CONTRATACIÓN B071-2020-00218
EGOERA
Irakurrita

# **Kontsulta, zuzenketak, adjudikazioaren aurreko eskakizunak, azalpenak eta galderak**

Gainerako aukeretara iristeko prozesua (zuzenketak, azalpenak, galderak, etab.) hau da:

1. Sartu lizitatzailearen gune pribatura.
2. Goiko eskuineko izkinako “Sarbide pribatua” aukeraren bidez kautotu zati honetan, eta, ondoren, baliozko ziurtagiri elektroniko baten bidez edo pasahitz baten bidez sartu, erregistratu ondoren. Erregistratzeko, ezinbestekoa da ziurtagiri elektroniko batekin lehenago sartu izana:




3. Bertan, lizitatzaileak izapideren bat egin duen espedienteen zerrenda agertuko da.


Eskaintzak
Eskaintzak
Esku hartzen duzun lizitazio-prozesuen jarraipena eta lizitazio elektronikoko plataformaren funtzionaltasunetarako sarbidea
Epean 11
Abian 29
Ebatzita 13
Zerrenda honetan zirriborroak gordeta dauden eta oraindik eskaintzarik aurkeztu ez duten fitxategiak aurkituko dituzu.
1 2
2023/0001/073/03
Título del expediente euskera NMA 01/03/23-001
Ikusi xehetasunak
EPEA
01/Mar/2023 - 09/Mar/2023 11:19
AURREKONTUA BEZ GABE
300.000,00 EUR
DBM/001/316
Primer expediente con la 316 (27/02/2023)
99999999R
Yaco Mauleón Eldas
99999999R
Yaco Mauleón Eldas
Lizitazioak
Jakinarazpenak
Komunikazioak 2
Galderak 1
Argibideak 2
Exekuzioa
Kontratuak
Kontratua sinatzea
Erosketak
Pedidos
Erregistroaren datuak
Kudeatu ordezkariak

## Kontsulta

Erakutsiko diren espedienteetako baten "Ikusi Xehetasunak" aukeran sakatuz gero, espedientearen informazio zehatza ikus daiteke. Atal horretan aipatutako informazioa eta gainerako izapideak kontsultatu ahal izango dira.




Erlaitzetan, espedienteari buruz daukagun askotariko informazioa eskuratu ahal izango dugu.




Behar izanez gero, "Izena eman" erlaitzetik, izena emateko datuak kontsultatu eta alda daitezke, ez eskaintzarenak.




"Eskaintza" erlaitzean eskaintzaren informazioa kontsulta daiteke, ezin da aldatu eta ireki ahala erakutsiko da, hau da, proposamenei buruzko informazioa enkriptatuta dago eta inork ezin du informazio hori eskuratu ireki aurretik.

Kudeaketan | Lizitaziao | Inskripzioa | Eskaintza | Galderak | Jakinarazpenak | Dokumentuak

Samurra edukia aurkeztu

## A gutun-azala - Administrazio agiriei buruzko gutun-azala

Lote 1: BI-2238 errepideko 35+600 eta 37+000 kilometropuntuen artean sarbideak berrantolatzeko eta trafikoa baretzeko lanak, Arteagan. [BU58] Copia del expediente de producción, número de solicitud: S00006666.

### 2. eranskina

Enpresa lizitatzailearen identifikazio datuei eta kontratatzeko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena

**ERANTSI DOKUMENTUA** — A2.Anexo 2.pdf

## B gutun-azala - Formula irizpideak dituen gutun-azala

Artikulua ez da oraindik ireki dira.

## C gutun-azala - Irizpide subjektiboak dituen gutun-azala

Artikulua ez da oraindik ireki dira.

## Zuzenketa

Karpeta pertsonalean, lizitatzailearen espediente guztiak biltzen dituen "Lizitazioak" atala zuzenean agertuko da, eta zuzenketak aurkeztu ez badira, "Zuzentzeko zain" agertuko da.




Aribidean dagoen lizitazioaren xehetasunetara ere sartu daiteke. Bertan, lizitazioari buruzko informazio guztia kontsultatu ahal izango da, eta, hala badagokio, galderak aurkeztu ahal izango dira, jarraian adierazten den bezala:




"Kudeaketan" erlaitzean, proposamenak zuzenketa behar badu, zuzenketa aurkezteko atal espezifikoa agertuko da.




Zuzentzeko irizpidean bertan, zuzentzeko arrazoia adieraziko da.




Zuzenketaren dokumentazioa gehitu eta ohi bezala amaituko da.




Zuzenketaren dokumentazioa erantsi eta ohi bezala amaitzen da.

## Dokumentazioa

Esleipenaren aurreko dokumentazio eskakizun bati erantzun behar bazaio, “Kudeaketan” atalean sartu behar da. Hura lizitatzaile baten aribideko lizitazioen xehetasunetan dago. Atal horretan, "Aurkeztutako dokumentazioa eskuratu" botoiaren bidez, dokumentu bakoitzean banan-banan sakatuta, fitxa bat irekiko da. Bertan, eskatutako dokumentuak dituen fitxategia sartu beharko da, eta hau hautatu beharko da: “Bestelako dokumentuak”. Amaitzeko, “Bidali” botoia sakatu besterik ez da egin behar. Horrela, dokumentazioa kontratazioa egin duen organoari helduko zaio, berrikusi ahal izateko:




Gehitu ondoren, erantsitako dokumentuen zerrenda agertuko da.


Hasiera / Karpeta pertsonala / Eskaintza /
2021/0034/073/10
BI-2238 errepideko 35+600 eta 37+000 kilometropuntuen artean sarbideak berrantolatzeko eta trafikoa baretzeko lanak, Arteagan. [BU58] Copia del expediente de producción, número de solicitud: S00006666.
Ekarritako dokumentazioa
Gehitu
DOKUMENTUAREN IZENA
MOTA
SARRERA DATA
SARRERA ERREGISTROA
Garantia provisional.pdf
Otros documentos
17/03/2023
Kodea
G88202300036795E
Deskargatu
Kopiaren egiaztagiria
99999999R
Yaco Mauleón Eidas
99999999R
Yaco Mauleón Eidas
Lizitazioak
Jakinarazpenak
Komunikazioak 3
Galderak 2
Argibideak 1
Exekuzioa
Kontratuak
Kontratua sinatzea
Erosketak

## Galderak

“Galderak” atalean lizitatzaileak kontratazio organoari egindako galderen zerrenda kontsultatu ahal izango da:




Lizitatzaileak galdera egin ahal izateko, lizitazio batean sartu behar da, xehetasunera iritsi eta “Galderak” aukeran sakatu. Ondoren, “Galdetu” botoian sakatu eta dagokion galdera egin:




Egindako galderak "Galderak" atalean jasoko dira. Bertan ikus daiteke erakundearen erantzuna.


Hasiera / Karpeta pertsonala / Eskaintza
2021/0034/073/10
BI-2238 errepideko 35+600 eta 37+000 kilometropuntuen artean sarbideak berrantolatzeko eta trafikoa baretzeko lanak, Arteagan. [BU58] Copia del expediente de producción, número de solicitud: S00006666.
BI-2238 errepideko 35+600 eta 37+000 kilometropuntuen artean sarbideak berrantolatzeko eta trafikoa baretzeko lanak, Arteagan. [BU58] Copia del expediente de producción, número de solicitud: S00006666.
Egoera: Ebaluazioa
KONTRATAZIO ERAKUNDEA
Diputación Foral de Bizkaia
ÓRGANO DE CONTRATACIÓN
Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial
Kudeaketan
Lizitaziao
Inskripzioa
Eskaintza
Galderak
Jakinarazpenak
Dokumentuak
Galdetu
Galderak
Nahi ditudan dokumentuak aurkeztu ditzaket?
BIDALITA
17/Mar/2023
Realizada por usted
Galdera honek ez du erantzunik jaso
99999999R
Yaco Mauleón Eldas
99999999R
Yaco Mauleón Eldas
Lizitazioak
Jakinarazpenak
Komunikazioak 3
Galderak 2
Argibideak 2
Exekuzioa
Kontratuak
Kontratua sinatzea
Erosketak
Pedidos
Erregistroaren datuak
Kudeatu ordezkariak

## Argibideak

Bukatzeko, baliteke espediente bat lizitatzeko prozesuan, kontratazio organoak eskatzea bai lizitatzaile zehatz bat baita irizpide zehatz bati buruzko nolabaiteko azalpena ere. Hori ikusteko eskuineko menura jo beharko da. Beste atal batzuk ez bezala, atal hori lizitatzailearentzat azalpenen bat dagoenean bakarrik ikusi ahal izango da; bestela, ez da agertuko:




Erantzun nahi dugun azalpena hautatu beharko dugu eta “Argibideak” botoian sakatu.

Kontratazio organoak lizitatzaileari eskatzen dion azalpena ikusi ahal izango da, eta erantzuna online eman ahal izango da atal honetan:




Xehetasuna ikusteko aukeran sakatuz gero, azalpenaren xehetasunak ikusi ahal izango ditugu eta erantzuna bete ahal izango dugu.



Behar izanez gero, “Erantsitako dokumentua” atalean dokumentuak erantsi ahal izango dira.

Erantzuna bete ondoren “Bidali” botoia agertuko da eta erantzuna erakundeari bidaliko dio.




